



Ametsa bete duen diseinatzaile gaztea

Xabi Romero Talacchia urnietarra Fiat marka ezagunean ari da lanean: "Arraroa egiten zait nire ametsa lan-esparruan hain gazte bete izana" / 2-3

Eskarmentua

Olatz Odriozola txirrindularia Euskadiko txapeldun-ordea da, ziklo-krolean / 10-11

**Olentzerok eta
Mari Domingik bizi
izan zuten antzeko
egoera biziko dute
Errege Magoek** / 15

**Erremontean
lehen txapela
noiz iritsiko zain dira
Imanol Ansaren
zaletuak** / 13

ATE IREKIAK

▶ **HH/LH** (HH/LHko eraikina)
URTARRILAren 15ean 11:00etan

▶ **DBH** (Batxilergo/DBHko eraikina)
URTARRILAren 12 eta 15ean

**Hitzordua beharrezkoa da web orrian hartzea*



www.magaleikastetxea.eus

943 55 17 82 (HH - LH) / 943 55 17 89 (DBH - BATX.)

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Aldaketari beldurrik ez dion gaztea da Xabi Romero Talacchia urnietarra. Eta sentimendu horrek berak eraman du urrutira oso denbora laburrean: jaioteritik Bartzelonara salto egin zuen, lehenik, ibilgailuen diseinua ikasteko. Hala, berehala eman zion jarraipena bere ibilbideari Alemanian, Pforzheim-en nahiz Frankfurt-en. Egun, 24 urte izateak ematen duten jakinminez zein bizi-gogoz, Torinon (Italia) bizi da, hainbeste bider amestutako lana egiten: Fiat ibilgailuen enpresako diseinatzaile da.

Txikitatik izan al duzu marraztea gustuko?

Ez dut gogoan noiz hasi nintzen marrazkigintza barrenak adierazteko bide gisa erabiltzen. Baina badakit oso gauza garrantzitsua izan dela betidanik, eta nire eskolako koaderno guztiak zeuden marrazkitxo betetarik. Une horretan, ez nekien zergatik nuen gustoko, baina adierazteko era naturala zen niretzat marraztea.

Orduan ere autoak marraztu eta marraztu aritzen al zinen?

Ez dira inoiz soilik autoak izan. Marrazki bizidunak ikusi ordez, dokumentalak ikusten igaro ohi nituen orduak txikia nintzelarik. Koaderno erdia autoen marrazkiek osatzen zuten, eta, gainerakoa, animalitxoek. Askok gustatzen omen zitzaidan animalia berriak ezagutzea eta beren jarrerak aztertzea, estetikari erreparatuta. Autoekin asko alderatzen nituen animaliak; adierazpen artistikoari dagokionez, izaki bizidun gisa irudikatzen nituen autoak: aurpegia zuten, ezaugarri estetikoak, izaera. Hala, natura oso presente nuen autoak irudikatzean.

Zerk eraman zintuen afizioa ofizio bilakatu nahi zenuela erabakitzea?

Gaur gaurkoz, oraindik ere ez dakit zein erantzun eman galdera horri. Txikia nintzelarik, garbi nuen nire etorkizuna estuki lotuta egongo zela autoen mundura. Denboraren joanaz, jabetu nintzen autogintzarekin harremana izateaz gain, adierazpen artistikotik ere asko izan behar zuela nire ofizioak. Hala, esan dezaket, nik bera baino, lanak berak aurkitu ninduela ni.

Erabaki irrazionala izan zen ikasketa hauek egiten hastea. Erakarpene handia sentitzen nuen mundu horrekiko, eta ofizioa existitzen zela ez nekienean ere

"Ez nuen ezohiko bide bat hautatzeko beldurra izan"

XABI ROMERO TALACCHIA IBILGAILU-DISEINATZAILEA FIAT ENPRESAN

Hautzarotik datorkio motor soinuarekiko erakarpene itsua urnietarrari. Egun, ofizio bilakatu du hasieran zaletasuna zena: ibilgailu diseinatzailea da Fiat enpresan



"Gidatu nahiko nituzkeen auto guztien zerrenda mahaigaineratuko banu, ez nuke sekula bukatuko. Oso pozik nago nire lehen kotxearekin: BMW E-46 325Ci (2001). Oso dibertigarria da gidatzeko eta ez dit sekula kale egin". XABIROMERO

hori bera egin behar nuela sentitzen nuen. Hamasei urte bete arte pentsatzen nuen nire ametsa horixe zela soilik, ametsa, eta "normalagoa" den ofizio bat topatu beharko nuela.


Ez zenion ohiko ikasketen bideari eutsi. Zaila izan al zen erabakia hartzea?

Aspertu egiten nau konbentzionalismoak; beraz, alde horretatik, ez nuen ezohiko bide bat hautatzeko beldurrik izan. Egia da urduritu egiten duela zure ingurukoek zurea baino errazagoa edo egingarriagoa den aukera bat hautatzen dutela ikusteak. Are gehiago esango dizut: Bartzelonan soilik egin nezakeen nik nahi nuena, eta, bestela, gertuen zegoen hurrengo geltokia Ingalaterra zen. Horrek lan-mundurako aukera urrien erretratoa egiten lagundu zidan. Estadistikei erreperatuta, oso zaila da autoen diseinatzaile gisa lan egiten egotea. Hori horrela, erronka handia izan zen niretzat, baina ez nuen irudikatzen neure burua beste ezertan. Horrenbestez, ez nion beldurrik porrotari. **Autodidaktatik asko izan al du zure ikasketa-prozesuak?**

Oso ibilbide subjektiboa da, izan ere, diseinuaren munduan hamaika irakurketa daude, hamaika lan egiteko modu, ikuspuntu, eta guztiak dira egokiak, alegia, ezin da "ondo" ala "gaizki" egin. Alabaina, gutxienezko irizpide batzuk bete behar dira produktu erakargarri bat egiteko, ideia interesgarri bat sortzeko. Egun batean, ohartu nintzen unibertsitateko formakuntzarekin ez nintzela inora iritsiko, eta asko jarri behar nuela nire partetik. Gure ofizioan sarri errepikatzen den egoera da, eta garapen pertsonalak garrantzi handia du. Ez da ibilbide akademiko konbentzionala, gurean ez dira apunteak buruz ikasten eta azterketak gaitzitzen. Sortzaile izaten ikasi behar da, pentsatzen, zure ideiak era erakargarri bezain eraginkorrean islatuta gelditu daitezkeen orri zurian. Krudela da, nork bere ibilbidea egin behar du, inor ez delako zurekin interesatzen. Nolanahi ere, esperientzia horrek zeure-zeurea den estiloa garatzen laguntzen dizu eta oso esperientzia dibertigarria da.

Nola egiten duzu lan?

Diseinatzaile baten lan-prozesua ezagutzeko, ezinbestekoa da azken emaitzaren xedea zein den



"Begirada zorrotz ipintzen dut produktuaren diseinuan. Erakarpen handia dut horrekiko, eta oso gustuko ditut freskotasuna transmititzen didaten diseinuak". XABIROMERO

ezagutzea, alegia, eraginkortasunaren eta estetikaren arteko orekan datza. Produktu bat polita bada, baina ez badu ezertarako balio, ez du inork erosiko. Alderantziz, erabilgarria bada, baina ez erakargarria, ez du arreta piztuko. Hala, zertan oinarritzen da lan-prozesua? Arazo bat konpontzean oinarritzen da. Nola egin hori? Ideia on batetik abiatzen da guztia, eta amu horrek balio bereizgarria eman behar dio sortuko den produktuari. Lehenik, azkenaldiko joeretan, azken puntako teknologietan, eta etorkizunean baliagarriak diren baliabideetan arakutzen duzu. Behin ideia horri eutsita, eta bezeroa ikasita nahiz ezagututa, has zaitezke marrazten eta hartzailearen premiei erantzungo dien autoa diseinatzeko. Hari horri tiraka, azken geldialdia hiru dimentsiotako produktu bat da; render delakoa. Formatu horretan saltzen ditugu gure produktuak, ideiak.

Lanari dagokionez, nahiko gautiarra omen zara. Ideia onenak ohera sartu orduko izateko al dituzu?

Bizi-egoeraren arabera da hori. Ikasle garaian, gaua iristen zenean eta apur bat lasaitzean, bizia hartzen zuen nire garunak. Ni, lotara joan nahian, eta, neure buruan, ideiak borborka. Inoiz

pasa izan zait goizeko ordu txikitetan jaiki behar izatea ezin nuelako lorik egin; ideia paperean islatu arte ezin nituen berriro ere begiak lasai itxi.

Non bilatzen duzu inspirazioa?

Gutxien espero dugun tokietatik dator kigu maiz inspirazioa. Finean, inspiratuta egotea baino garrantzitsuagoa da burua irekia izatea. Nire kasuan, harreman estua dudana jendearekin aurkitzen dut hori, besteak beste, bikotekidearekin, familiarekin eta lagunekin. Horrez gain, lagunak zait barne-mundu izugarria izatea; noizean behin, film bat ikusten ari naizela, adibidez, erakargarria zaidan eszenaren bat ikusiz gero, marrazteko premia dator kit. Ideiak marrazten ditut, eta inspirazio-iturriak oso anitzak dira, esan bezala, elkarriketa batetik hasi eta pelikula bat bitarte.

Zer eduki behar du auto batek erakargarri izateko zuretzat?

Bilatzen ari zarenaren arabera da hori. Begirada zorrotz ipintzen dut produktuaren diseinuan. Erakarpen handia dut horrekiko, eta oso gustuko ditut freskotasuna transmititzen didaten diseinuak. Zenbait marken irribarrea ateratzen dizute errepidean topo egiten dituzunean. Horri ematen diot balioa nik azkenaldian.

Askotariko moduak daude autoak interpretatzeko. Ez da gauza bera sentitzen lur orotako ibilgailua edota kirol-autoa ikustean. Diseinuaren xedea azken bi horietan oso ezberdina da; beraz, auto bakoitzak duen helburua balioan jartzen jakin behar da. Zentzu horretan, guztiak ditut gustoko, eta edozein autoarekin gozatzen dut. Halere, kutsu dibertigarria eta abenturazalea duten autoek erakartzen naute gehien.

Arkatzarekin marraztea duzu gustoko, edo teknologia berriei baliatzen zara?

Kontraesankorra da nire erantzuna. Lehen, asko erabiltzen nuen arkatza; boligrafoz ere marrazten dut, pare bat kolore konbinatuta, komiki-kutsua emateraino. Halaber, aipatu dituzun teknologia berriak beharrezkoak dira gure lanbidean, xehetasunik zorrotzera ere adierazi ahal izateko. Horregatik, inportantea da 3D-ko modelaketa egiten jakitea. Desagertzen ari da arkatza eta orri zuria

"ARRAROA EGITEN ZAIT NIRE AMETSA LAN-ESPARRUAN HAIN GAZTE BETE IZANA"

darabilen diseinatzailearen irudia, mundu gidigatalak ordezkatu baitu.

Zer sentitzen da 24 urterekin marka ezagunentzat lanean ari dela ikusteak?

Bai, apur bat arraroa egiten zait nire ametsa lan-esparruan hain gazte bete izana. Izan ere, zintzoki esanda, ez nuen espero inoiz horrelako marka bateko diseinu-taldean lan egiteko proposamena jasoko nuenik. Ondo baino hobeto gogoratzen dut eskaintza jaso nuen unea; ez nintzen gai gertatzen ari zena barneratzeke.

Ibilbide laburrekoa bazara ere, Torinon bizi zara orain, Fiat enpresarako diseinatzaile gisa.

Zoriontasun handia sentitzen dut. Niretzat zazpi urteko erronka izan da, eta gauza asko alboratu behar izan ditut bidean aukera hau begien aurrean izateko. Behin eskaintza iritsita, presioa joan egiten da apurka, eta orduan hasten zara benetan diseinuaren munduaz gozatzen. Hori horrela, pozgarria nahiz lasaigarria da niretzat, eta, gainera, gogokoen dudana markan egiten dut lan; ezin gehiago eskatu.

Amore eman dezakezu edota egiten duzun horretan sinetsi. Autoak nola irudikatu pentsatzean datza nire lana, oso era

dibertigarrian. Biziki gozatzen dut buruari eragiten. Finean, niretzat munduko bigarren lanbide onena dut; lehena Formula 1-eko pilotua izatea da.

Zein auto dauka Xabi Romero Talacchiak?

Gidatu nahiko nituzkeen auto guztien zerrenda mahaigaineratuko banu, ez nuke sekula bukatuko, amaigabea baita. Alabaina, apeta gutxikoa naizela esango nuke, eta oso pozik nago nire lehen kotxearekin: BMW E-46 325Ci (2001). Oso dibertigarria da gidatzeko eta ez dit sekula kale egin. Alemaniara edota Italiara etorri da nirekin; jada, lagun kutsua hartzen diot nire autoari, ondo egiten diogulako elkarri, eta oso ondo zaintzen dudalako. Nahiz eta nire lehen autoa beste munduko ezer ez izan, esanahi handia du eta ez nuke beste batengatik aldatuko, eskaintza munduko auto onena izanda ere.

Aurrera begira, zein erronka dituzu buruan?

Jakin-min handiko pertsona naizela esango nuke, eta horretan jarraitu nahi dut, erronka berriei erantzuten. Etorkizunean, orain egiten dudanaarekin asebeteta sentituko ez banintz, gauzak jaso eta beste zerbait egiten hasiko nintzateke.

OHARRA

ERREDAKZIO TALDEA

Buruntza mendia Andoainen izan arren, gurutzearen eraisketak oihartzuna izan du eskualdean. Jarraian, Lasarte-Oriako bi adierazpen.

ADIERAZPENA

PSE, EAJ ETA ELOP LASARTE-ORIA

Adierazpena

Lasarte-Oriako Udalak erabat gaitzesten du Buruntza mendiaren gainean zegoen gurutzea suntsitu izana. Elementu hori, jatorri Frankista izanda ere, esanguratsua zen Buruntzaldean bizi direnentzat, bereziki mendi horretara igotzeko ohitura dutenentzat.

Lasarte-Oriako Udala aspaldidanik ari da ahalegina egiten, Islada Ezkutatuak elkartarekin batera, Errepublikaren aurkako 1936ko estatu-kolpearen ondoren gure biztanleriak bizi izan zituen gertaera lazgarrien eta ia 40 urtez jasan zituen giza eskubideen aurkako atentatu larrien memoria historikoa berreskuratzeko.

Buruntza mendiko gurutzea estatu-kolpearen ondorengo gerra garaitzean faxistek eraiki zuten, baina egia da, era berean, monumentu hori herritarrek onartu dutela, esanahi berria emanez eta kolpisten asmotik, beren garaipena gogoraraztekotik, aldenduz.

Ernai taldeak gurutze hori alde bateko erabakia hartuta suntsitzea errespetu falta da gaur egun gurutze horri beste esanahi bat, egileek eman ziotenaren guztiz desberdina, eman diotenen aurka. Gainera, gure ustez, Andoaingo Udalak, oroimen historikoko lan zintzo eta demokratiko bat oinarri hartuta, monumentu horri beste esanahi bat eman ahal izan zion, demokraziaren, askatasunaren, giza eskubideen eta errepublikaren erasotzaile faxistek nahi zutenaren guztiz kontrako esanahia, hain zuzen.

IRITZIA

ISLADA EZKUTATUAK MEMORIA-TALDEA LASARTE-ORIA

Buruntzako gurutzea

1936ko abuztuaren 30ean, 39 orduko borroka gogorren ondoren, Oria bailara inbaditu zuten tropeletako batzuk, gehienak nafar erreketek, San Roke basiliza menderatu ostean, Buruntza mendiaren lehen lepoa konkistatzea lortu zuten, Andoaindik gertuen zegoena. 24 ordu gehiago behar izan zituzten Buruntza mendiaren gainerakoa kontrolatzeko Azkorteko ermita zaharreraino.

Operazioak 80 baja baino gehiago ekarri zizkien, beren Operazio-Egunkarietan aitortzen duten bezala. Eraso horretan parte hartu zuten unitateen zerrenden arabera, andoaindarrik, lasartear-oriatarrik edo urnietarrik ez zegoen Buruntza eraso zuten unitate horietako batean.

Agian, Tolosako erreketek batzuk, baina kopuru txiki batean, eta ez zuzenean Buruntza hartzean.

Buruntzaren defentsan, berriz, inguruko herrietako, Andoaingo, Lasarte-Oriako, Urnietako, Hernaniko eta abarretako herritar dezentek parte hartu zuen; jokabide horrekin, demokrazia, Errepublika, eta, ondoren ikusiko zenez, herri oso baten askatasuna defendatu zuten.

1937ko apirilaren 20an Franco jeneral ohiak, kolpista izateagatik armadatik kanporatua izan zenak, 1936ko uztaileko altxamendu militarren alde egin zuten bi alderdi politikoeak, hots, Komunio Tradizionalista –karlistak– batetik, eta bestetik, Primo de Rivera eta Hedillaren Falange Espainiar Tradizionalista eta Ofentsiba Nazional Sindikalistaren Batzarrak. Era horretan, Falange Espainiar Tradizionalista eta Ofentsiba Nazional Sindikalistako Batzarrak izeneko erakundea eratu zuen, FET y de las JONS bezala edo Mugimendu Nazional gisa ezagunagoa. Alderdi bakarra diktadura frankistaren ondorio guztietarako, azken batean.

Andoaingo Udalaren akta-liburuan, 1939ko uztailaren 26an, udalbatzak FET eta JONSen ideia onartu eta bideratu zuen, hau da, Buruntza mendian gurutze bat eraikitzea, “Gurutzada Santu honetan eroritakoen omenez”.

1939ko irailaren 1eko El Diario Vasco egunkariak, Andoaingo kronikan, honako hau kontatzen du: "Gudu odoltsu honetan, guretako batzuen baja jasan behar izan genuen; horregatik, Udalak, auzotarren lankidetzarekin, Jainkoaren eta Aberriaren defentsan hil ziren Eroriak eta soldadu ausartak ohoratzeko nahia gauzatu du, oroitzapen errukiorra iraunarazten duen gurutzea eskainiz...

(...) Igandean, Buruntza mendian, kanpaina-meza egin zen, agintariak eta jende ugari bertaratuz; ondoren, mendiaren alde gorenera joan ziren, eta gurutze monumental bat bedeinkatu zuten. Halaber, otoitz egin zuten Aberriaren mesedetan bizitza eskaini zutenen betiko atsedenaren alde. Buruntzan eroriak! Hemen!”.

Gurutzearen ondoan, zera zioen plaka bat ipini zuten: “Fedearen eta Aberriaren gurutzatuak. Zuen Oroimen Santuari eskaintzen dio, Andoaingo herriak gure erredentzioaren itxaropena. 1936/1939”.

Buruntzako gurutzea jartzearen egiaztatze historiko, objektibo eta dokumentatuak ez du zalantzarako tarterik uzten, zehatza da: Errepublikako demokraziaren aurka altxatutakoek eragin zuten gatazka militarra irabazi ondoren zutitu zuten monumentua da.

Horiexek bultzatu eta sortu zuten erregimena honelaxe kalifikatu zuen NBEren Batzar Nagusiak bere 39 (I) ebazpenean: "(a) Jatorrian, izaeran, egituran eta jokabide orokorrean, Francoren erregimen faxista da, eta hein handi batean Hitlerren

Alemania naziaren eta Mussoliniren Italia faxistaren laguntzari esker ezarri da”.

Gurutzearen helburua erregimen hau sortzen lagundu zutenen glorifikazioa eta oroitzapena zen.

Euskal Autonomia Erkidegoak, estatu akonfesional bateko kide izan arren, Eliza Katolikoak markatutako eta herri-kulturan finkatutako ohitura, erritu, sinbolo eta abar ugari ditu, eta horiek arazoak sortzen dituzte erlijio-kultuen artean desberdintasunak ezartzeko orduan. Ohitura, sinbolo eta abar horietako askoren jatorria katolizismo nazionala da, 1939ko apirilean matxinatuen garaipenaren ostean gizarte osoan armaz inposatu zena.

Buruntzako gurutzea, egoera horren adibide garbia da.

Askori, erraz ahazten zaie Buruntzako gurutzearen existentziaren zergatia, kultura herrikoian errotuta dagoela argudiatuz gero. Bere jatorria alde batera utzita sinbolo bihurtu dela diote, eta kasu honetan bezala herri-ikuspegi erlijiosoetan, sinboloek jatorrian izan zuten funtzionaltasun politikotik kanpo uzten dituztela.

Beste batzuek diote herritarrek sinbolo horregatik ezagutzen dutela ingurunearen estetika, bere jatorriari eta justifikazioari buruz galdetu gabe.

Abenduaren 26ko 52/2007 Legeak, Memoriaren Legeak, honako hau ezartzen du: “15. artikulua. Ikur eta monumentu publikoak. 1. Herri-administrazioek, beren eskumenak gauzatzean, neurri egokiak hartuko dituzte ezkutuak, intsigniak, plakak eta gorespen pertsonal edo kolektiboa, altxamendu militarra, gerra zibila eta diktaduraren errepresioa gogorarazten dituzten beste objektu edo aipamenak kentzeko. Neurri horien artean egon daiteke diru-

laguntzak edo laguntza publikoak kentzea”.

2007tik Buruntzako gurutzea kentzeko eskumena duen administrazioak ez du norabide horretan ekintzarik egin.

Memoriaren legeria bera betetzeko atzerapenak egoera zailak sortzen ditu Roger Chartier historialariak esplizituki adierazi izan duen bezala: “ezin dira inoiz ahaztu memoriaren eskubideak, izan zenaren faltsifikazioaren edo ukazioaren aurkako matxinada baita”.

Buruntzako gurutzea, bere garaian, inguruko biztanleriaren gehiengo demokratikoaren aurka altxatu zen, eta gaur egungo biztanle gehienak kontuan hartu gabe eraitsi da.

Gure ustez, Buruntzako gurutzeak goratu zen ingurunean zenbateko iraupena izan duen ikusita, kanpaina pedagogiko bat egin behar zen sinboloaren jatorriaren eta esanahiaren ezagutza bere osotasunean zabaltzeko, eta ez emateko bidea inguruko biztanleen ezjakintasunak, denboraren iragateak edo gogoeta estetiko edo erlijiosoez baldintzatutako interpretazioak egin zitezen.


Elkarte horren ustez, halaber, frankismoaren sinbolo garbi horiek aspaldi desagertu behar ziren, eta erabat sinetsita dago horrelako eragiketak Administrazio Publikoek egin behar dituztela, eta ez erakunde politikoez, herri-erakundeek edo edozein mailatako erakundeek.

Eta inork ez luke ahaztu behar arerio komuna frankismoa dela, bere sinbologia eta bere kontakizuna.

"INORK EZ LUKE AHAZTU BEHAR ARERIO KOMUNA FRANKISMOA DELA"



Aiurri.eus | Bideo-sorta zabala



Adarramendira igoera



Elkartasun ekimenak



Euriteak



Aktualitatea



Gabonak



Ama Kandida gogoan



Trafikoa



Musika



Gertakariak



Olentzero eta Mari Domingi Goikoplazan, joan zen abenduaren 24an. AIURRI

Ez zuten hutsik egin

Aita Larramendi ikastolak ekitaldia antolatzea lortu zuen, Andoaingo Udalarekin lankidetzan. Eguraldi onaz lagunduta, dozenaka haur elkartu zen Goikoplazan Olentzero eta Mari Domingi aurrez aurre ikusteko eta beren adierazpenak entzuteko

Erredakzioa ANDOAIN

"Ez gara kalez kale ibiliko, baina etxe guztietara iritsiko gara", adierazi zuen Mari Domingi Udaletxeko balkoitik egindako adierazpenean. Olentzerok lasaitasun mezua zabaldu zien haurrei, eta bizipozez aritzeko deia egin zien. Ekitaldian ez zeudenak gogoan hartu eta euskarara eta euskal kultura egune-

rokotasunean bizitzeko gogoan agertu zuten. Aiurri.eus bidez zabaldutako bideoan, bi pertsonaiek etxean zeudenak gogoan hartu nahi izan zituzten. Izan ere, egun hauetan dozenaka lagun dira etxean bakartuta egon behar dutenak.

Musika eta kantua ez ziren falta izan. "Datorren urterarte!" esanez agurtu ziren Olentzero

eta Mari Domingi Udaletxeko balkoitik. Aita Larramendi ikastolako lantalde handiari esker egin ahal izan zen ekitaldia, musikariz eta abeslari bikainez aberastu dena. Bertan ziren haur eta gaztetxoentzat gogoangarria izan zen. Gauean, haurrak lo ziren bitartean, lan eta lan aritu ziren bi pertsonaia ezagunak.



Olentzero eta Mari Domingi ez ziren bakarrik aritu. Lagun talde handiaren ezinbesteko laguntza izan zuten. AIURRI



Jasotako diru guztia La Palmakoen esku utzi dute. AIURRI

Azoka solidarioan bildutakoa La Palmara iritsi da

Azken asteetako ekimenen ondorioz Andoain 12.400 euro lortu dituzte, eta Urnietan ia 800 euro

Erredakzioa ANDOAIN

Azkenean Azoka Solidarioa abenduaren 18-19ko asteburuan egin ahal izan zen, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. Antolakuntzako kideek diru kontaketa egin zuten udaletxean abenduaren 28an, bideoz graba-

tutako ekitaldian. Segidan banketxera abiatu ziren diru sarre- ra egitera. Saldu ezinik geratu zitzaiena Urnietara eraman zuten, Etxeberrri plazan bertako auzo-batzordeak abenduaren 29 eta 30rako antolatu duen Azoka Solidarioan saldu asmoz.



Zenbaketa egin zuten Andoaingo pleno aretoan. AIURRI

Andoain eta Urnietan

Lantaldeak dirua bildu eta zenbatu ostean, kopuru osoaren berri eman zuen: "12.470,32 euro. Horixe da La Palma Azoka Solidarioan bildu dugun kopuru zehatza! Oso pozik gaude guztiokin. Eskerrik asko zuen elkartasunagatik! Dirua, azaroan Goiburu Andoainek antolatutako golf txapelketa solidariotik, dohaintza ezberdinetatik eta objetuen salmentatik dator. Diru guztia gaur bertan sartu da La Caixa bankuan, La Palmako Kabildoaren kontu-zenbakian".

Etxeberrri plazako auzotarrek abenduaren 29an eta 30ean antolatu zuten azoka solidarioa, helburu berberarekin. Han ere kontuak argi: "Adi! Urnietako La Palmarako Azoka Solidarioan biltzea lortu dugun kopuru zehatza 773,59 euro dira! Mila esker zerbait erostera edo ematera etorri zareten guztioi!".



San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzaren kanpoaldean. AIURRI

Musika doinuak kalean

Zoritxarrez musikariari zuzenean aritzeko ate asko itxi zaizkio. Abenduaren 24an Gora Kaletxiki Bandako kideek musikarako duten grin hori erakusteko aukera izan zuten. Saio politak eskaini zituzten Joxe Mari Oiartzabalen esanetara

Xabier Lasa ANDOAIN

Gora Kaletxiki Bandak Gabon kantekin herriko kaleak alaitu zituen, abenduaren 24ko eguerdian. Joxe Mari Oiartzabalek zuzenduta, besteak beste, San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzan kontzertu berezia eskaini zuten. Atarira atera ziren egoiliarak eta zaintzaileak ezohiko emanaldiaren lekuko

izan ziren. Pandemia tarteko, geroz eta ekitaldi gutxiago antolatzen baitira. Gogo biziz aritu ziren txarangako kideak adinekoen aurrean, musikariei orohar zuzenean aritzeko aukerak asko murriztu zaizkielako.

Ama Kandidatik Kaletxiki aldera jo zuten musikariek. Eta ondoren Goikoplazan, Bastero plazan eta Zumea plazan saio

bana eskaini zuten. "Haurtxo maite", "Kanta kantari", "Hator, hator mutil etxera" eta "Aintza zeruan" kantuez gozatzeko aukera izan zen besteak beste. Joxe Mari Oiartzabal bera sasoiko dagoela antzematen zen.

Abenduaren 24ko emanaldi bereziko hainbat bideo ikusgai daude Aiurri.eus webgunean, bideoen atalean.



Oiartzabal eta Gora Kaletxiki Bandako kideak Goikoplazan. AIURRI



Neska-mutilentzat jardura oso interesgarria izan zen. AIURRI

Skate jardura berritzaileak ikasteko aukera paregabea

Holy Riders eskolako kideek tailerra antolatu zuten Andoainen. Hainbat kidek erakustaldia eskaini zuten

Mikel Arberas ANDOAIN

Daniel Lafuente Holy Riders eskolaren sortzaileetako bat da eta Gabonetan Andoainen erakustaldia eskaini zuten. *Skateboarding*, *Longboarding* eta *Surfskate* modalitateak lantzen dituzte, haur, gazte zein helduekin. Azken urteetan gorakada handia izan du kirol jardura honek, eta Andoainen bereziki 2019ko udabe-

rrian skatepark berria zabaldu zutenetik. Gutxi batzuren zaletasuna zena, askoren gogokoa den jardura handiagoa bilakatzaren ari da. Andoaingo erakustaldian asko izan ziren probatze- gerturatu zirenak. Andoaingoak baziren, noski, baina baita inguruko herrietakoak ere. Eta kirolariei begira, zaletuak, haurrak eta gurasoak.



Erakustaldia eskaini zuten haurren, gurasoen eta zaletuen begietara. AIURRI



Skateboarding, Longboarding eta Surfskate modalitateak lantzen dituzte. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Olatuaren gaineratik iritsi den olatutzarra

Ondarreta ikastetxearen parean dago antígeno eta PCR proba egiteko gunea, Andoainen. Egun hauetan instalakuntzatan sartzeko soka luzeak ikusi ditugu, Osasun etxe osoa inguratzeraino. Antzeko irudiak iritsi zaizkigu askori, inguruko herrietakoak. Tolosakoak, urrutira joan gabe. Hara joan behar izaten baitugu haur txikiak ditugunok, gelako baheketak egiten direnean. Gabon hauetako irudi horiek pandemiaren hasierara garamatzate. Gogoan duzu, irakurle, Zumea plazan Eroskira sartzeko sortzen zen ilara luzearekin?

Ia bi urte hauetan tokian tokiko datuak jaso eta argitaratu ditugu Aiurri.

Olatuz olatu, bazegoen nolabaiteko logika bat. Gertaera jakinen atzean positibotasun handia antzematen zen. Iazko ekainean esanguratsua izan zen Hernaniko ez festen eragina inguruko herrietako egoera epidemiologikoan.

Oraingoan ezberdina izan da. Azaroan Andoainen eman zen jauzi handia, tsunamiarekin parekatu genuena. Baina hona iritsita, eta Euskal Herri osoko positibotasunak gainezka egin duela ikusita, zein da tsunami hitza txiki uzten duen hurrengo adiera? Bilaketan ari garen bitartean esan dezagun seigarren olatuaren gainean zazpigarrena iritsi dela: Olatuaren gainean

olatzarra. Zutabea idazten ari naizela ez ditugu oraindik aurreko asteko datuak jaso, Osakidetzaaren boletina geroz eta beranduago argitaratzen baitira. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua al da Andoainen 45 edo 66 positibo izan ote ziren jakitea? Horrek zertan alda dezake egun hauetako pertzepzioa?

Aldaera berri honekin gaixotasuna arin igarotzea da ohikoena. Milaka eta milaka kasuren artean, ordea, badira dozenaka batzuk ospitaleratu behar izaten dutenak. Hortxe dago orain kezka iturri nagusia, arazo handi baten aurrean gauden seinalea. Zenbateraino estutuko ote den lehendik herren xamar zebilen osasun sistema.



Ilara luzeak sortu dira egun hauetan, Osasun Etxea inguratzeraino. AIURRI




Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analisiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s



andoaINDARRA
euskaraz



Grafikoa ikusirik, eta azken egunetako datuak kontutan hartuta, oso posible da olatu honetako ospitaletako eta UCI-ZIUtako okupazioak aurreko lau olatuenak baino altuagoak izatea. C-19 ANALISIA

Ospitaleetako okupazioa, urte hasierako kezka iturria

Azken asteetan nabarmen igo da ospitaletako eta zainketa berezien unitatetako okupazioa

Erredakzioa ANDOAIN

Urtearen amaierara iritsita, positiboaren kopurua biderkatu egin da. Portzentaia handiak gaixotasuna modu arinean igarotzen badu ere, hainbeste ku-

tsatuekin, kasu larrien areagotzea ematen ari da. Une honetan ehunka lagun daude ospitaletan eta horietako askotxo zainketa berezien unitatean. Igoera, gainera, ez da mailakatua izan.

Ospitaleratzeen garapena

Igoera handi samarra eman zen abenduak azken egunetan.

- Abenduak 29:
UCI-ZIUtako 115.
Ospitaleetan 455.
- Abenduak 22:
UCI-ZIUtako 101.
Ospitaleetan 285.
- Abenduak 5:
UCI-ZIUtako 70.
Ospitaleetan 266.
- Abenduak 1:
UCI-ZIUtako 55.
Ospitaleetan 207.



Osasun etxetik ehunka herrikide igaro da aste hauetan. AIURRI


Gurutze-bidea Osasun etxera, gurutzerik gabeko egunetan

Antigeno eta PCR probak egiteko ilara luzeak osatu dira hango eta hemengo osasun etxeetan

Erredakzioa ANDOAIN

Dozenaka lagun Osasun etxearen inguruan, soka luzea osatuz. Hango eta hemengo osasun etxeetan errepikatu den irudia izan da. Andoainen, Ondarretako haur

ikastetxearen parean hasi eta Rikardo Arregi kaleraino iristen zen. Agustin Leitza kaletik panorama gurutz-bidearen parekoa zen, Buruntzako tontorrean gurutzea falta zenean.



Grafikoa ikus daitekeenez, txertaketagatik izan edota Omicron aldaeraren sintoma arinagoengatik izan, egungo Koronabirusaren hilgarritasun-tasa –positiboaren artean gertatzen diren heriotzen portzentaia– inoiz izan dugun baxuena da. C-19 ANALISIA



Andoni Urbistondo URNIETA

Datorren aste bukaeran jokatu-ko den Espainiako Txapelketa prestatzen ari da Andoainen bizi den urnietarra, baina 38 urterekin, emaitzari baino gozatzeari ematen dio lehentasuna; kirola egitea ezinbestekoa baitu egunerokoan hobeto moldatzeko.

38 urte eta ezin lokatzari, euriari, hotzari iskin egin. Olatz Odriozolak bizikleta zikintzen jarraitzen du asteburuetan. Euskadiko Txapelketan bigarren postuan sailkatu zen Paula Suarez-en atzetik, eta podiumean sartzen saiatuko da asteburuan Xativan, Valentzian jokatu-ko den Espainiako Txapelketan, zirkuitua berarentzat onegia ez bada ere. Lehiaketaz, adinaz, ziklo krosaren egoeraz hitz aspertu luzea eduki du Aiurri-rekin.

Zer moduz doa bizitza, Olatz?

Beti bezala. Lana eta bizikleta partekatuz.

Nola moldatu zara ditxosozko pandemiarekin?

Pandemiak ez du eragin fisikorik sortu nigan, beste edozein herritar bezala izan da nire egunerokoa: etxeratzean etxean egon, lanera joateko mugak nola edo hala pasa... Kirol arloari dagokionez, niregan ohikoa zen seriotasuna bazterrean utzi dut apur bat. Lehen entrenamenduak finago osatzen nituen, baina oso lasterketa gutxi egon ziren, noraezean dena, eta horrek, nahi gabe ere, sasoi puntu ona kaltetzen du. Nire kasuan, sasoi ona lasterketetan estutuz hartzen dut, ez hainbeste entrenamenduetan, eta egutegia egonkortu denean, hobeto aritu naiz.

Nola eraman duzu ziurtasun falta hori?

Beno, gorputza bera erositu egiten da. Hasiara batean denboraldia osatzeko asmorik ere ez neukan. Gipuzkoako Federazioak deitu zigun, teknifikazio ikastaro batzuk emateko. Animatu egin nintzen. Ikasi duguna besteei erakustea gozamina da niretzat, teknika eta beste. Orain arte ez zegoen ezer arlo horretan. 30-40 neska mutilekin aritu ginen, eta horrek arra sortu zuen bueltan nigan. Oso kirolzalea naiz, behar dut zerbait egin, eta bizikleta ez balitz, beste zerbait izango litzateke. Behar fisikoa eta mentala da, zure hobe beharrez egiten duzuna. Estutu bat eman gorputzari, eta hobeto bueltatzen zara etxera. Errazena sofán etzanda

"Ikasi duguna besteei erakustea gozamina da"

OLATZ ODRIOZOLA BIZIKLETA.COM TALDEKO ZIKLO-KROSLARIA

ZIKLO-KROSA Eskarmentu handiko txirrindularia da, eta oraindik ere egurrean aritzeko gogoz dago. Ikasitakoa gazteei erakusten gozatzen ari da



Olatz Odriozola Andoainen bizi den urnietarra da. BIZIKLETA.COM

geratzea litzateke, telebistan serieak ikusten, baina horrek niri ez dit batere mesederik egiten. Ohe batean egona naiz, luze, istripu baten ondoren, eta oso gogorra izan zen. Pertsona aktiboa naiz, askatu egin behar dut. Etxeratzea ondo eraman nuen, sukaldean ere ondo moldatzen naiz, eta gustura. Gorputza bizkorra da, ohitu egiten da gauza onera, etzanda egotera. Sufritzea ez zaio inori gustatzen, ezta gorputzari ere.

Adinean ere gora egin duzu. 38 urte, dagoeneko. Nabaritu duzu?

Aldatu egiten zara. Ez da lehen bezala. Lehen eurtan irteten zinen, zikintzeak bost axola, lokatzean bueltaka... Denerako prest! Orain ja, nagiak jota nago. Istripua eduki nuenean, 2017ko San Fermin egunean, nire buruari esan nion: 'kitto, hau bukatu da!', baina bueltatu egin nahi nuen. Bukle antzeko batean sartu nintzen gazteekin izandako ikastaroetan, eta bueltatu naiz.

Zer ikasi zenuen istripuarekin?

Zorte ona izan nuen, atera nintzen. Gauza batzuk ez daude zure esku. Ondorio aberasgarriak ekarri dizkit. Istripua gabe ez

"SASOI ONA LASTERKETETAN ESTUTUZ HARTZEN DUT, EZ HAINBESTE ENTRENAMENDUETAN"

nuen ondoren ateratako indarririk erakutsiko, mundialera joan, Espainiako Txapelketan hirugarren sailkatu izan. Barruan amorrua neukan, indarra, eta atera egin nahi nuen. Baita atera ere. Orduko indarririk ez daukat orain, dena den.

Eta noiz arte jarraitu nahi zenuke lehiatzen?

Ez dakit, ez baita lasterketa kontua. Horietan aritu gabe ere kirolarekin lotuta jarraituko dudala esango nuke.

Bigarren izan zinen Euskadiko Txapelketan, Paula Suarez-en atzetik. Emaitza bikaina da.

Maila apala da oso. Ez da normalea ni bigarren izatea. 38 urte ditut, bizikleta lanarekin partekatzen dut... Sasoi puntu onean nago, gazteei egurra emateko gai naiz, irabazteko borrokan sartzeko gai, baina maila oso apala da. Ez nuen espero bigarren izatea, alabaina sufritzen ikasi dut urteen joan etorrian. Lokatz gehixeago egon izan balitz... Deigarria da ni garaipenerako lehian aritzea. Borrokarako, irabazteko grina falta da. Proba hasieran buruan jarri nintzen, pentsa... Pozik nago, dena perfektu egin bainuen. Askotan gertatu izan zait, irabazi eta hain gustura ez geratzea.

Maila oso apala dela esan duzu.

Kritiko zara emakumezkoen ziklo-krosak bizi duen egoerarekin, ezta?

Hemengo maila ezin da atzerrikoarekin konparatu... 70-80 neska lehiatzen dira atzerriko probetan. Hemen, Euskadiko Txapelketan, bospasei elitekoak atera ginen, eta 10 bat jubenil. Denak ezagutzen gara elkar. Arreta ematen dit neskek eta inguruak zer pentsatzen duten, podium bat lortzen dutenean, sekulako lorpena balitz bezala, ez denean.

Asteburuan Espainiako Txapelketa jokatu da Xativan. Ze asmo?

Ez ditut aurkariak ezagutzen. Ibilbidea teknikoa da, hareagatik. Eskailera ere badauzka. Fabritoeke kale egiten badute postua hobe izango da. Karrera onak egin izan ditut, nazioartekoak batez ere. Aurrean ibili naiz, atzean aterata. Ez dut emaitza txarrik lehorrean. Hara joan eta disfrutatzea da nire asmoa. Podiuma oso zaila ikusten dut. Datorrena etorrita, eta gustura geratzen ba naiz, ederki. Akatsik ezin da egin. Jende asko abiatuko gara, irteera urduria izango da oso.

Munduko Txapelketan aritu zinen 2018an. Errepikatzeko asmorik bai aurten?

Ezinezkoa da. Parametroak aldatu egin dira. Munduko Txapelketa hasi aurretik Munduko Kopako hiru proba korritu behar dira, derrigor, eta Top 30ko postuak lortu. Gastuak zuk ordainduta, noski. Espainiako hiru onenen artean egon behar zenuke, baina azken erabakia pertsona baten esku dago, hautatzai-learen esku. 36. postuan bukatu nuen 2018n; ez naiz itzuliko.

Bitxia da Munduko Kopako hiru proba korritu behar izatea exigitzea, baina diru laguntzarik ez ematea horretarako. Nola da posible hori?

Ez daukat erantzunik, eta atzerrian korritzeko gastuak handiak dira. Furgoneta bat behar duzu, materiala, 10 orduko bidaia, gasolina, laguntzaileak, mekaniko gu geu, eta ostatua. Furgoneta bakarrik 1.000 bat euro izango dira. Eta lau egun behar dituzu! Profesionala ez bazara ezinezkoa da. Ahal izanez gero hegazkinean joango ginатеke, baina ezin. Esango nuke Espainiako Txirrindularitza Federazioa gauzak zailtzen joan dela, ez zaiolako gustatzen Espainiako ziklo-krosleriak Munduko Kopara joan eta emaitza kaskarrak lortzea... Munduko Kopa batean lehiatzeko gutxieneko maila eduki behar da, bukatu, gutxienez. Bukatzen ez baduzu, onena ez joatea da. Atzerrian



Txirrindulari gazteek lekukoa hartu behar dutela argi dauka: "Gazteek hartu behar dute ekimena, helburu argi batekin: txirrindularia zaindu". BIZIKLETA.COM

lehiatuz jabetzen zara nazioartean ez daukazula mailarik. Frantziako Kopa korritzea da horretaz jabetzeko aukera ona, eta gertuago dugu. Han bai ondo! Maila ikaragarria da. Lehiaketa mailan, antolakuntzan eta abar. Nik ikaragarri gozatu izan dut Frantzian, eta gazteei bide hori gomendatuko nieke. **Federazioko lizentziarekin ere komeri franko izan dira. Zikloturista foroetan ere jendea haserre dago,**

160 euro balio duelako federatu txartelak. Ze iritzi duzu egoeraz?

Lizentziaren kontuak estresa sortzen du, federazioak ez du lanik errazten, tramitazioarekin eta beti berandu, Gabonak dira. Errepideko profesionalak lizentzia egitera behartu dituzte Euskadiko Txapelketa korritzeko. Zer esango dute profesionalak? Itxuraz dirua jasotzea da helburu bakarra. Txapelketa ofiziale-tan lehiatzen garenok ia 300

euro ordaindu behar dugu lasterka egin ahal izateko, lizentzia eta esfortzu proba. Jendea uxatzen ari dira, erakarri orde. Kadete bati hori eskatu eta zer pentsatuko du ba? Gastuak handiak dira ziklokrosean, bestela ere, eta nik esaten diet gazteei: gustatzen bazaizu, segi, baino bestela ez. Matxurak, bizikleta garbitu eta prestatu behar. Etxean egin badezakezu, hainbestean, baina lasterketa guztiak

bukatuta bizikleta dendara eramane behar baduzu. Gero, ziklo-krosleriok bi bizikleta behar ditugu! Egia da Gipuzkoako Federazioak aurten bigarren bizikleta bat jarri duela ziklo-krosleriaren eskura, hori gauza ona da. Eguraldia gurean ere ez da bidai lagun ona. Txarrarekin, zer? Hotza, lokatza. Kirol asko daude merkeagoak, sufrimendu gutxiago sortzen dutenak.

Teknikakazio ikastaroak gazteei ematen aritu zara. Zer balantze egiten duzu?

Entzungo ez balute bezala sumatu nituen, estralurtarrekin hizketan ariko banintz bezala. Gero lehiatzen hasi ziren, eta kolpe latza hartu zuten. Negarrez, hatzak mugitu ezin hotzarekin, miseria asko.

Iritzi jantzia duzu, eskarmentu handia. Ez al duzu pentsatu ardura posturen bat hartzea federazioan?

Ez. Asko hitz egiten dut dagoeneko antolatzaile eta federazioko kideekin. Urte pilo bat daramat borrokatzen, esan behar nuena esaten, ezagutzen naute. Lehiakide asko niregana etortzen dira babes eske, baino esaten diet euren txanda dela, nik hitz egin dudala nahiko, eta gainera, ez didate kasurik egin. Gehiegi entzun naute. Saiatu naiz gauzak egiten, baina alferrik. Dagoeneko ezin dut gidari izan. Gazteek hartu behar dute ekimena, helburu argi batekin: txirrindularia zaindu.

Adarramendira gauez

MENDIZALETASUNA Zanpatuz taldeak antolatutako ekitaldia jendetsua izan zen, eta hurrengo urteetan antolatzen jarraituz gero kopurua handitu egingo da. Esperientzia zirraragarria baita. Joan zen abenduaren 23an 82 lagun abiatu ziren gauez, Besabitik. Buelta hiru ordutan burutu zen, inolako arazorik gabe. Zorua lehorra zegoen, tarte batzuetan izan ezik, eta zerua lainotuta, baina euririk ez. Ilargia ikusteko aukerarik ez zen egon. Igoera egin eta gero Arlegorko zabalean barrena 21:00ak aldera iritsi ziren Besabira. Txikienek gozatu zuten gehien, haietako askorentzat Adarramendira igotzea gauza handia delako. Zer esanik ez gauez, lehen aldia izan baitzen ia denentzat.



ZANPATUZ




EUSKALDUNA

Futbol kanpusa Ubitarten

FUTBOLA Futboleaz ez ezik, Euskaldunako Gabonetako kanpusean aisialdia osatzeko eta adiskidetasunean sakontzeko ekitaldiak antolatu dituzte. Entrenamendu tekniko-taktikoak jolas ludikoekin uztartu zituzten abenduko azken egunetan. Esperientzia polita izan da parte hartzaileentzat.

Aukera gutxi lasterkarientzat

KROSA Urtarrilaren 9rako Asteasun iragarrita zegoen kros solidarioa, baina antolaketa proba atzeratzea erabaki du: "Krosa antolatzeak eta ospatzeko dauden zailtasunak aztertu ondoren krosa ez ospatzea erabaki da. Urtarrilaren bukaeran data berria zehaztuko da". Andoaingo eta Urnieta korrikalariak parte hartu izan dute. 2018an Asier Martinez gailendu zen.



AIURRI

Adarramendira igoera

MENDIZALETASUNA Urnieta, Andoain, Beterri-Buruntza eta Donostialdeko mendizale askorentzat urtarrilaren lehenean Adarrara igoetzea ohitura bilakatu da. Goizean goizetik Adarramendira hurbiltzen diren lagunak ez dira gutxi. Gehien-gehienak Besabitik, baina andoaindar eta urnietar asko ere beste bideetatik hurbiltzen dira. Eta ez soilik oinez. Bigarren urtez jarraian Euskalduna mendigoizale taldeak ez zuen salda berorik eskaini. Covid-19 garaiotan ez dira salda eskaintzeko baldintzak betetzen.



AIURRI



Artxiboko irudia. AIURRI

Andoaingo eskubaloitxapelketa, bertan behera

Gabonetako eskubaloitxapelketa denboraldi amaieran antolatzea erabaki dute.

Erredakzioa ANDOAIN Egoera epidemiologikoa estua dela eta, lagunarteko txapelketa bertan behera uztea erabaki du Leizaran eskubaloitxapelketa taldeak: "Erabakia osasun egoerak okerrera egin duelako hartu dugu. Gure lehentasuna beti izan da jokalarien eta familien osasun segurtasuna".



BURUNTZALDEA IKT

Gabonetako sari nagusia

IGERIKETA Urte amaiera aldean lehia betean ibiltzen dira Buruntzaldea IKT taldeko igerilariak. Neguko Ligako 4. jardunaldia Hernanin jokatu zen, joan zen abenduaren 18an. 11 taldekide aritu ziren lehia. Bestalde, Ordiziako Gabonetako Nazioarteko Txapelketa ezagunean hiru ordezkariak parte hartu zuten.



ITURRIA

Elastiko berria soinean

TXIRRINDULARITZA Urtea aldatzearekin batera hasiera ematen diote denboraldi berriari. Mikel Iturria urnietarrak beste denboraldi bat abiatuko du profesional mailan, Euskaltel Euskadi taldean. Sare sozialetan partekatu zuen elastiko berria. Urte berria, denboraldi berria, jantzi berria. Zorte on, Mikel!



Urnieta
udala



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Zain



Ansa eta Urriza finalean. ORIAMENDI

Zain segi beharko du Imanol Ansa erremontista gazteak. Zertarako, zain, baina. Zain egoteko modu asko baitaude. Lehiaketa bateko txapeldun handi izateko zain jende gutxi ezagutzen dut inguruan, eta erremontea bezalako kirol diziplina zail batean are gutxiago. Pilota bati behin inor edo ni neu kolpatu gabe ematea lortuko banu, arrakasta handia.

Finalak galtzeak mina ematen du. Finalak jokatu eta irabazi egin nahi baititugu. Kontsolamendu eskas, gaur egungo bizitza lehiakorrean, finalak jokatzeko. Haietara iristea gauza erraza balitz bezala. Lau final, eta txapelik ez. Zain urte pare bat, Imanol txikia.

Txikia bai, baino eskasa ez. Galarretako erremontista onenek aspaldi utzi baitzioten Imanolen zain egoteari. Javi Urriza eta Endika Barrenetxea maisuek aho bizarririk onartzen dute Ansa koadroko erremontista onenetakoa dela, enpresako hanka azkarrenak dituen lehiakidea. Imanol haietako bat da, dagoeneko. Falta zaio, noski, zerbait: izango da tenplea, batzuetan. Eskarmentua besteetan. Tarteka errebotea izango da, eta oso tantaka, diziplina honetako maisuek berezkoa duten talentu puntu erabakigarria.

Javi Urriza nafarraz ari gara. Osteguneko bere zazpigarren txapela da bikoteka. Erremonteko historiako mito bat da, uneko erremontista onena. Hamarkada pasa darama txapelak jantzi eta jantzi, eta 40 urtetik gertu egonda ere, hari irabazteko dena behar

da oraindik. Inork baino talentu gehiago dauka, ezinezkoak diruditen pilotak eramaten ditu, eta aurkaria gutxiarekin behartu egiten du. Pilota eroso harapatzen badu jai du aurkariak, eta horrek erre, ito egiten du aurkaria. Urrizari boterea kentzeko borroka psikologikoak indartsuena ere akabatzen du.

Berekoiz andia, Ansaren zale asko Urrizak erretiroa hartu zain gaude, horrek urnietarrari txapelak gerturatuko dizkiolakoan. Baina ziur nago Ansa bere lehen txapela Urriza edota Endika Barrenetxearen aurka lortu nahiko duela. Txapeldun, txapeldun handiak menderatuz lortzea baino gauza hoberik ez baitago, haiek erretiroa hartu zain egon gabe.

Eta bere familiak, bikoteak koadrilak, lagunak, zain jarraituko dugu. Txapela iritsi, iritsiko delako. 2022an, edo 2023an. Imanol txikia baita txapel kopuruz, baina handia jokoz, ausardiak. Ostegunearn harmailetan bildutako zale askoren txalo zarta soinuak eragin zituen, egin dako tanto ikusgarriekin. Eta 38-37koarekin, berdinketa eta sakea emango zien 38. tantoa egiteko berebiziko arriskua hartu zuen, hala egin behar zuela jakitun. Kontrakantxako txapan egin zuen bote bi pareta ikusgarriak, eta Imanolek bazekien finala hantxe bukatu zela. Ez zuen denbora gehiago zain geratu nahi izan.

Zaleok gure arima konkistatu zain ere ez dugu egon beharko, dagoeneko. Aspaldi bereganatu zuen.



Rosco eta Segurado. UDALA

Mapa turistiko berria Bertan bulegoetan eta ostatueta

Urnietako Udalak sortu du, udalerriari buruzko informazio argigarriarekin

Erredakzioa URNIETA

Kanpoko lagun eta ezagunei Urnietako ondarea helarazteko aukera dute urnietarrek, mapa turistiko berriaren bitartez. Eskuorria eskuratzeko Bertan bulegoetara edo herriko ostatueta jo behar dute.

Mapa turistiko berrian udalerriko puntu eta toki esanguratsuenak bildu dituzte. Era berean, interesgune horiei lotuta QR kodeak erantsi dizkiote, interesa duenak "Urnietan ostatu hartzeko, jateko edo erosteko informazioa ikus dezaten".

Bisitariarentzat balio handikoa da, udalerria bisitatzerako etortzen direnean informazio interesgarria eskura izango dutelako.



Otsolepoko trikuharria. LEITZARAN



Makinak Babilonia inguruan. UDALA

Lur-mugimenduak Babilonian, DBHko eraikina lantzen hasteko

Babiloniako lur eremua urbanizatzeko lanak hasita daude. Udalak bere konpromisoa berretsi du, berriki

Erredakzioa URNIETA

Dagoeneko makinek lur-mugimenduari ekin diote. Urnietako Udalak plenoan, bestalde, "proiektu estrategiko horrekiko konpromisoa berretsi" berri du. Izan ere, aho batez onartu zuen, abenduaren 16ko udalbatzarrean

Egapeko DBHko eraikina egiteko erabiliko diren lursailak Eusko Jaurlaritzari lagatzea. Hala, Egapeko DBH eraikina errealitate bihurtzeko prozesuak "norabide onean" aurrera egiten jarraitzen duela jakinarazi du Urnietako Udalak.



AIURRI

Bereizketa selektiboa

Edukiontzia bakoitzean bota beharreko hondakinei buruzko zalantzak argitzeko eskuorria zabaldu dute Urnietan, berriki. Horiez gain, kanpaina ikusgai izango da udalerriaren datorren urtarilaren 11ra bitarte. "Birziklatu! Totem informatzaileak" izeneko kanpaina San Marko Mankomunitateak, Ecoembesek eta Ecovidrok sustatu dute.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ASTEAZKENA 5

ESKUALDEA Errege Magoak

Baldintza berezietan hurbilduko dira aurtengoan. Xehetasunak, 15. orrialdean.

16:00 Urnieta. Udal pilotalekua.

20:00 Andoain. Goikoplaza.

ANDOAIN Sarrearen salmenta

Basteroko kultur programazioaren sarrearen salmenta zabalik dago.

Bastero, Kutxabank.

ANDOAIN Artisanu azoka

Hainbat sortzaileen eskutik: Alonso,

Tuduri, Sortzen naturarekin bat...

10:30-14:00/16:30-20:00.

Zumea plaza.

OSTIRALA 7

ANDOAIN Kontzertua

Adi! Bertan behera geratu da Huntza taldearen kontzertua.

Data berria zehazteke dago.

LARUNBATA 8

URNIETA Elkarretaratzea

Sarek mobilizazioak deitu ditu herriz herri.

17:00 San Juan Plaza.

OSTIRALA 14

ANDOAIN Jon Maia

"Kantu bat gara" disko berria aurkeztuko du.

20:30 Bastero. 12 euro.



Txotx garaiak pandemiako hirugarren aroari ekingo dio. AIURRI

ESKUALDEA Sagardoaren sektorea batuta agertuko da

Sagardotegi denboraldiaren hasiera aurkeztuko dute. Denboraldia nolakoa izango den eta noiz hasiko den iragarriko dute. Horrez gain, uztaren inguruko datuak eta sektoreko informazioa eskainiko dute.

Urtarrilak 11, asteartea. 10:30, San Telmo museoa.



Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga.

URNIETA Aurre-estreinaldia

"Lehendakari gaia" antzezlan euskaraz. Lehendakari hautatu berria eta psikiatraren arteko solasaldia da antzeztanaren oinarria.

Urtarrilak 10, astelehena. 19:00, Sarobe.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Pocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnieta).

Diseinua: Goienna Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



URNIETA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA


ZIURTAGIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Mama o papa

Larunbata, 8. 19:30, 22:00.

Igandea, 9. 19:30.

Astelehena, 10. 19:30, 22:00.

Cazafantasmas: Mas alla


Larunbata, 8. 17:00.

Igandea, 9. 17:00.

The King's Man: La primera misión.

Canta 2

Urtarrilak 15eko asteburuan.



SINOPSIS

**Mama o papa**

Zuzendaria: Dani de la Orden. **Aktoreak:** Paco León, Miren Ibarra, Laura Quiros, Sofia Oria, Ivan Renedo, Eva Ugarte, Miquel Fernandez, Berto Romero, Pedro Casablanc. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Generoa:** Komedia, familia. **Iraupena:** 103 minutu.

Familiari buruzko komedia

Flora eta Victor haur guztiek izan nahiko lituzketen gurasoak dira: modernoak, dibertigarriak eta maitagarriak.

Harremana etetea erabakitzen dutenean dena okertzen da. Arazo bat sortu zaie biei: zaintza.

SINOPSIS

**Cazafantasmas: Mas alla**

Zuzendaria: Jason Reitman. **Aktoreak:** Carrie Coon, Paul Rudd, Finn Wolfhard, McKenna Grace, Bill Murray, Dan Aykroyd, Sigourney Weaver. **Herrialdea:** AEB (2021). **Generoa:** Zientzia fikzioa. **Iraupena:** 124 m.

Film ezagunaren bigarren zatia

Ama bat eta bere bi semeak hiri txiki batera iristen dira, jatorrizko mamu ehiztariek

duten lotura eta aitona utzitako ondare sekretua deskubrituz.

"Ilusioa behar dute gure txikiek zein familiek"

DAVID URTASUN LA SALLE BERROZPE IKASTETXEKO ZUZENDARIA

Egoera epidemiologikoa zaila bada ere, Errege Magoek ez dute hutsik egingo aurtengoan ere. Andoaingo baldintza berezietan ospatuko da

Erredakzioa ANDOAIN

Ekitaldiaz zer aurreratu daiteke? Nolako izango da?

Gaur egungo egoera epidemiologikoa eta Covid neurriak kontutan izanda, Andoaingo Udarekin adostutako ekitaldia izango da aurtengoa.

Alde batetik, Errege Magoen karabana txikia ibiliko da herriko kaleetatik eta, ondoren, udaletxeko balkoian ohiko Errege Magoen mezuaren zabaltzea.

Lehenengo ibilbidean ahalik eta herriko kale, plaza eta txoko gehien zeharkatzea da helburua. Badakigu, zoritxarrez, txiki, gazte, heldu zein familia ugari hamarraldian daudela eta hein batean kabalgataren momentu magiko hori bizitzeko aukera izango dute.

Ez da inolaz ere geldialdirik izango, hau dela eta, etxeetako leiho zein balkoitik agurtzea eskatzen zaigu herrikiideei. Kaleran pertsonen arteko pilaketak saihesteko udaltzaingoa izango da bidea zabaltzen. Errege Magoen mezu ezberdinak zabaltzeko dira karabanako megafonia bitartez. Ibilbidearen nondik norakoa ez da zehaztuko.

Familiei begira, Goikoplazara agertzea izango da onena ezta?

Ekitaldiko bigarren zatia, hurbildu daitekeen pertsona guz-



David Urtasun, La Salle Berrozpe ikastetxeko zuzendaria. LASALLE

tientzako dago pentsatuta. Momentu laburra, segurua eta, Covid aurreko egoeran egiten genuen moduan, magikoa izango da. Bereziki hori eta gehiago merezi duten gure txikientzat. **Zenbat lagunen laguntza behar da horrelako ekitaldia antolatzeko?** Ohiko Errege Magoen Kabalgatant eundik gora bolondresekin (familia, ikasle, irakasle, arduradun...) hartzen zuten parte. Aurtengoa baldintza berezietan antolatuko da, eta lantalde txikiago batekin aurrera atera ahal izango dugu.

Egoera zail honetan, La Salle Berrozpetik haurren ilusioari eustea gailendu da.

Hain luze eta gogorra egiten zaigun garaiotan, ilusioa behar dute gure txikiek zein zein familiek. Merezi dutelako! **Segurtasun neurri bereziak izango dira, ala abenduaren 24koaren antzekoak aurrikusten dituzue?**

Aurreko abenduaren 24ko antzeko neurriak aurreikusten ditugu. Horiekin nahikoa izango delakoan... Urtarrilaren 5a bitarte egoerari eustea espero dugu, denon artean.



2019ko edizioa. AIURRI

"Aurtengoa berezia izango da"

Ikastetxeak ekitaldiaren berri eman du: "Denok ilusio handia dugu elkar ikusteko, baina zaindu behar gara. 18:30etan hiru erregeak, kapotarik gabeko kotxe batean, poliki baina gelditu gabe, auzoz-auzo joango dira euren agurra zabaltzen. Sorabillatik hasiko den ibilbidean, balkoi, leiho zein etxe paretik Erregeak ikusteko aukera izango duzue. Iluntzeko 20:00tan Goikoplazara helduko dira eta "Errege Magoen mezua" zabaltzeko da, Andoaingo txistularien laguntzarekin. La Salle Berrozpe Ikastetxeak antolatzen duen ekitaldia bolondresekin egiten da, Andoaingo Udalaren laguntzarekin bat".

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Aratz eta Eneko Berrueta

Zorionak Aratz eta Eneko Berrueta! Gure txikiak 2 urtetxo eta ez hain txikiak 40 urte besterik ez, urtarilaren 11 eta 13an! Etxekoan partez zorionak! Milaka muxu!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- Whatsapp bidez: 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- Arantzibia 4-5, behea Andoain
- Telefonoa: 943 300 732

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Andoaingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza **edo mintz-lagun** bila dabil: Gaztelaniz eta ingelesez

/ danesaz aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: **reflexologist45@yahoo.co.uk**

PARTE

HARTZEKO

Email: **diseinua@aiurri.eus**
Whatsapp: **619 163 537**
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. ANDOAIN**

TELEFONO ZENBAKIAK

OSASUN ALORREKOAK

Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

Urnietan Errege Magoak Udal pilotalekuan izango dira

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera bertan izango dira. Aldez aurretik hitzordua eskatu dutenentzat, soilik

Erredakzioa URNIETA

Koronabirusak gizarte bizitza berregokitzea garrantzitsua da, Urnietan ahalik berezia egin dute ohiturei eusteko. Bereziki, Errege Magoen etorrerari eusteko. Hainbat txanda antolatu

dituzte haurren adinaren arabera. Txanda hartu ez dutenak ezingo dute sartu Erregeak agurtzera. Udalak kontutan hartu beharreko hainbat argibide eskaini ditu. Horien artean, honakoak:

- Covid ziurtagiria erakutsi beharko dute haurrekin joaten diren 12 urtetik gorako pertsonak.
- Frontoien barruan musukoa erabili beharko da.
- Ilarak eta pilaketak ekiditeko sarrera eta irteera mailakatuak izango dira.

Haur bat, opari bat

"Aurten banatuko diren opariei dagokienez, balore ekologikoak indartzeko balioko dute". Hori aurreratu du Udalak.



Pajeak, artxiboko irudian. AIURRI



Guraso taldearen konpromisoa ezinbestekoa da, haurrak euskaraz bizitzeko ahaleginean. AIURRI

Txikienetik hasita, urratsez urrats euskaraz

Andoaingo Udaleko Euskara sailak abenduan abiarazi zuen "Ogia ez dadila falta... ezta euskara ere!" kanpaina, udalerriko haurtzaindegi eta ikastetxearen lankidetzarekin. Urtarriletik ekainera gurasoek euskararen aldeko konpromisoa hartu behar dute

Erredakzioa ANDOAIN

"Norberaren hizkuntza eta kultura oinarri izanik", haurrak euskaraz murgiltzeko eta hiz-

kuntzaren transmisioa egiteko gonbita luzatu diete Andoaingo familiei. Horretarako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek

eskuorri bat eta ogi txiki bat jaso zuten abenduan, gero etxera eramateko eta familian partekatzeko.

Eskuorrian euskararen transmisioak duen garrantzia azaltzen da, eta hori bermatzeko hainbat aholku jasotzen dira, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta arabieraz. Aldi berean, urtariletik ekainera bitarteko egutegia ere badago, eta hilabete bakoitzera-ko erronka bat jartzea proposatzen zaio familiari: "Erronka, noski, familiaren euskara gaitasunaren arabera izango da, familia euskaldunentzat, adibidez, euskaraz dakiten guztiekin euskaraz aritzea izan daiteke erronka, beste familia batzuentzat, berriz, euskarazko filma bat ikustea... Erronka horiek ikasgeletan eta familietan lantzen joango dira ekain bitartean, eta aukera ederra eskainiko dute eskolan eta familian euskararen inguruan hitz egiteko".

Andoainen hizkuntza asko erabiltzen dira egunerokoan, eta hizkuntza horien guztien hiztunak ikasten ari dira herriko ikastetxeetan. Euskarari eusteko kanpaina abenduan hasi zen, eta 2022an zehar luzatuko da. Hilabetez hilabete erronka txikiei helduz. "Haurren aurrean helduok heldu" izan zen abenduan Topaguneak abiarazi zuen egitasmoa. Andoaingoa ildo beretik doa, ikasturte osora zabalduta. Gurasoen konpromisoa beharrezkoa baita.



Artxiboko irudia. AIURRI

Korrika eta Euskaraldia, 2022ko hitzorduak

Udaberrian Korrika iritsiko da eskualdera, eta Euskaraldiaren edizio berria udazkenean

Erredakzioa ANDOAIN

Hitza eta ekintza. Hori da 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era Amurrión hasi eta Donostian bukatuko den Korrikaren 22. edizioaren ideia: "Ekiteko ordua da, orain bukatu behar da tontoa, orain irabazi behar da norgehiagoka. Eginez eragingo dugu eta eginaraziko diogu elkarri. Zerekin? Hitzekin, hitzarekin eta ekinarekin".

Badator Euskaraldia, eta hirugarren edizioaren lema "Hitzek ekiteko garaia" izango da. Deitzaileen asmoa honakoa da: "2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra ilusioz, arduraz, gogoz eta emozioz ekingo diogu ariketari. Kaleak beteko ditugu berriz ere, euskaraz hitz egitea inoiz baino errazago izan dadin. Belarriprestok eta ahobiziok aukera berriak izan ditzagun lan egingo dugu elkarrekin, auzoz auzo, herriz herri eta arigunez arigune. Hitzek ekiteko garaia heldu da".

Gurasoen inplikazioa behar-beharrezkoa da



XABIER AMIANO
GURASOA

"Gurasoek euren artean euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartzen badute, positiboa da hori. Haurrentzat gurasoak eredu dira".



MARY CAYETANO
GURASOA

"Badira gurasoak euskaraz egitea zerbait gehiago kostatzen zaiena, eta kanpaina honi esker euskaraz aritzea sustatuko dugu. Motibazioa handiagoa delako".



ASIER UGARTE
GURASOA

"Bikotea ez da hemengoa, eta haurra bi hizkuntzatan komunikatzen da gurekin. Etxean euskaraz hitz egingo duen norbait izatea garrantzitsua da".



KANZA ZEMMOURI
GURASOA

"Ondo iruditzen zait kanpaina hau aurrera eramatea, kanpotik gatozenok gutxienez oinarritzko hitzak erabili ditzagun. Modu horretan praktika areagotzen da".



andoaINDARRA
euskaraz